



**SEXU-JAZARPENeko ETA  
SEXUAN ETA SEXU-  
ORIENTAZIOAN  
OINARRITUTAKO JAZARPENeko  
EGOERETAN **PREBENTZIOA**  
LANTZEKO ETA **ESKU**  
**HARTZEKO** PROTOKOLOA**

**Eguneratuta 2024**



**mugarik  
gabe**



2019ko asanbladan, Mugarik Gabek erabaki zuen Sexu Jazarpeneko eta Sexuan eta Sexu Orientazioan Oinarritutako Jazarpeneko Egoeretan Prebentzioa Lantzeko eta Esku Hartzeko Protokoloa eratzea. Une hartan, berezko hartu genuen onarpen prozesuan zegoen Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Protokoloa eta gure erakundean ezartzeko beharrezko ekintzak burutu genituen. Koordinakundearen Genero Taldeko kide gisa, protokoloaren eztabaidan eta lanketan parte hartu genuen, eta, beharrezkoa ez ezik, erreferentea ere badela uste dugu, eduki zein ikuspuntuarengatik.

Protokoloa onartutakoan, eduki guztia berrartzea erabaki genuen eta bereziki Mugarik Gabeko errealiterara moldatu genituen honakoa proposatzen duten **PREBENTZIO-NEURRIAK**:

Lan-inguruneko sexu jazarpenari eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren aurrean 0 Tolerantzia adierazpena, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Zero Tolerantzia Dekalogoaren asanbladan sinatuz.

Zero Tolerantzia Dekalogoaren ageriko leku batean kokatzea Mugarik Gaberen hiru bulegoetan, eta tokiko kideei erakundean ageriko leku batean kokatzea eskatzea.

Tokiko kideei protokoloaren berri ematea.

Erakundean sexu jazarpena eta sexuan edo sexu orientazioan oinarritutako jazarpena hautematen, zailtzen edota geldiarazten duten berdintasun-politikak onartzea.

Lankidetzaren eta ekintza humanitarioko edo larrialdiko proiektuetan sexu jazarpenari eta sexuan edo sexu orientazioan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko neurriak eta horren arriskua txertatzea.

Langileak hautatzeko edozein prozesutan, sexu-izaerako delituen ziurtagiria eskatzea edo antzeko erreferentziak pareko egiaztapen ofizialik ez duten herrialdeetan.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak gai honen inguruan sustatzen dituen prestakuntzetan parte hartzea.

## **JARDUTEKO NEURRIAK**

Protokolo honetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero esku hartu ahal izateko, **erreferentziatzeko taldea** (Koordinakundekoa) eratu da, eta salaketak jasotzeaz eta ikerketa-fasea abiarazteaz arduratuko da. Mugarik Gaberen betebeharra da taldea osatuko duten pertsonen izenak eta harremanetarako bidea jakinaraztea.

Atal honetan jasotako esku hartzeko prozesuak ez du inola ere bazterten, mugatzen edo baldintzatzen biktimaren eskubidea den prozedura judiziala, eta aldi berean eraman ahal izango da hori erabakiz gero, epai irmorik ez dagoen bitartean.

Esku-hartze **fase** hauek zehaztu dira:

- I. fasea- Komunikazioa eta aholkularitza
- II. fasea- Barne-salaketa eta ikerketa
- III. fasea- Ebazpena
- IV. fasea- Konponketa

2019an protokolo honen **JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA** egiteko konpromisoa hartu genuen, Koordinakundearen erreferentziazko protokoloari jarraiki. 2021ean egin genuen jarraipen saioa eta 2023an ebaluazio saioa.

Jarraipenaren erantzun gisa, 2023ko ekaineko asanbladan protokoloa, jarraipena eta egungo egoera aurkeztu ziren. Balorazio bateratua egin zen eta, hortik abiatuta, taldeka proposamenak landu dira protokoloa eguneratzeko asmoarekin. Proposamen horietan oinarrituta, **egungo protokoloari gehitzeko ondorengo konpromisoak** adostu genituen:

## 1. Asanbladarako

- Jazarpen kontuetan jabetzerako, ahalduntzerako eta aurrera egiteko monografikoa egitea asanbladaren baitan, bereziki eztabaidetan edo protokoloa gauzatzeko zailtasunetan aplikatzeko (kideak, hezkuntza, jazarpen egoerak...).
- Dauden beste protokoloak ezagutzea eta jarduteko ideiak hartzea.
- Protokolo honen garrantzia azpimarratzen da eta baita MGren prozesuarekin duen koherentzia ere, baina, era berean, ez gara arrazakeria publikoki ez erakunde gisa jorratzen ari. Protokolo hedatua bi jazarpen egoerei erantzuteko tresna izan zitekeen balioetsi ostean eta azalean geratzeko kezkarekin, arrazakeriaren aurkako gogoeta-prozesuari ekitea proposatzen dugu, neurri batzuk koherentziaz definitu ahal izateko. Momentuz, hasierako ekintza batzuk definitu ahal izango lituzkeela balioesten da, esaterako, pertsona arrazializatuentzako eta migratzaileentzako gune seguruen alde egitea.

## 2. **Genero eta feminismoen arduradunarentzako**

- Honen jarraipen periodikoa eguneratzea (2025 eta 2027), aplikazioa ezagutzeko eta jabetza indartzeko.
- Adostutako proposamenekin protokolo-dokumentua eguneratzea.

## 3. **Lankidetzta Taldearentzat**, kolektiboki lan egitea:

- MG jazarpen egoeretan nola azaltzen den aztertzea, Latinoamerikan zein EHn parte hartzen duen beste sareetan. Zer egin gertakari horien jakitun bagara? Zein da gure rola? (prebentzioa, seinalatzea...) Nola uztartu lurraldeko beste eragileekin? Gure mugak zehaztu? Nola esku hartu? Nolakoa litzateke prozesua?
- Kideei protokoloa aurkezteko modua adostea, haien arteko desberdintasunak kontuan izanda: zein helbururekin, nola, zein den MGren proposamena (trukatzea, laguntzea, saihestea, haien protokolo propioak egitea...), inpaktuak ikusaraztea.
- Lortu nahi dugunaren adierazle batzuk definitzea.
- Protokoloa betetzen ez bada, nola ekin behar dugun zehaztea.
- Proiektuetan konpromisoa argi uztea. Gure proiektu guztietan prebentzio, arreta, sentsibilizazio, barne-mailako... ekintzak txertatzea da proposamena, ez ditugu zertan proiektu espezifikoak planteatu. Gure kideak barne-mailako prozesuekin laguntzea, haiek bere prozesuak eta jarduteko modua diseinatzen dutela.
- Gaia zuzenean jorratearen garrantziari balioa ematen zaio, adibidez, bisiten bidez, hitzik gabeko komunikazioaren garrantziagatik eta gaia korapilatsua delako.
- Gure kideekin elkarrizketak norekin egiten ditugun kontuan izatea. Erasotzaileekin ez izatearekin kontuz ibili. Salaketan bestelako oihartzuna izango duen rola izan dezakegu edo hala adierazi. Biktimekin artikulazioa garrantzitsua izan daiteke.

## 4. **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Taldearentzat**, kolektiboki lan egitea:

- MG jazarpen egoeretan nola azaltzen den aztertzea, gure ekintzetan, gure sareetan, lan egiten dugun enprekin... Zer egingo genuke gertakari horien jakitun bagara? Zein da gure rola? Gure mugak zehaztu? Nola esku hartu?
- Entitateekin, erakundeekin, sareekin... ekitea jazarpen egoerak daudenean.
- Prebentzio-ekintzak eta gure jardueretan ekitea (presentzialki eta sare sozialen bidez).
- Lortu nahi dugunaren adierazle batzuk definitzea.
- Protokoloa betetzen ez bada, nola ekin behar dugun zehaztea.

Asanbladan, protokoloa berrestean konpondu ezin ditugun kontu zehatzetarako irtenbidea lortzeko aholkularitzak bilatzea ere balioesten da (kideekin lotutako kasuak, arrazakeriarekin lotura edo bestelakoak). 2024ko amaieran talde-lana interesgarria izango litzateke eta 2025erako aholkularitza zehatzak behar diren aztertzea.

Mugarik Gabe, 2024ko martxo



1. Arrazoiak
2. Protokoloa testuinguruan
3. Helburuak
4. Ezarpen-eremua
5. Aplikatu beharreko araudia
6. Jazarpen moduak GGKEetan
7. Definizioak
  - 7.1. Definizio orokorrak
  - 7.2. Kide diren erakundeen esparrurako definizioak
8. Printzipioak eta bermeak
9. Prebentzio-neurriak
10. Esku-hartzeko prozesua  
Erreferentziazko lantaldea
  1. fasea: Komunikazioa eta aholkularitza
  2. fasea: Barne-salaketa eta ikerketa
  3. fasea: EbazpenaErakundeko erabaki-organo gorenaren betebeharrak
  4. fasea: Erreparazioa
11. Segimendua eta ebaluazioa

#### ERANSKINAK

1. eranskina. Lan-inguruneke sexu-jazarpenari eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko Zero Tolerantziako Dekalogoak
2. eranskina. Salaketa-eredua
3. eranskina. Erreferentziazko lantaldearen betebeharrak eta txostenaren ezaugarriak
4. eranskina. Erreferentziazko lantaldearen direktorioa



## 1. ARRAZOIAK

2018an, komunikabideetan aireratu ziren GGKEetako zenbait kidek eragindako jazarpen, gehiegikeria eta sexu-erasoen inguruko hainbat eskandalu. Krisi-egoeran zeuden herrialdeetan lan egiten zuten GGKEetako kideak zeuden nahasita eskandalu haietan. Gertakari horiek agerian utzi zuten egitura patriarkalak gizarte-sektore guztietan daudela errotuta, eta guztietan gertatzen direla eta gerta daitezkeela indarkeria matxistaren adierazpen askotarikoak, salbuespenik gabe.

Gertakari horiek inflexio-puntu bat ekarri zuten, eta, horren ondorioz, sektoreak kasu horiei aurre egiteko duen modua berrikusi behar izan genuen. Hein handi batean gertakari horiek bultzatuta eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko zenbait eremutan (Genero-lantaldean, adibidez) indarrean zen hausnarketa-prozesuak eraginda, zenbait ekimen landu ditugu sentzibilizazioaren eta kontzientziazioaren arloan, gure erakundeen barnean horrelako kasuak gertatzen direnean nola jokatu jakiteko. Protokolo hau onartuta, urrats bat aurrerago ere egin nahi dugu, eta erreferentziazko tresna bat sortu nahi dugu, prozedura bat arautu eta horrelako jokabideak direla eta zero tolerantzia agertuko duen lanabes eraginkor bat, hain zuzen ere.

Protokolo hau beste urrats bat da desoreka sozialeko egiturak esparru guztietara iristen direla onartzeko bidean. Hauek dira egitura horietako batzuk: sexuaren araberako lan-banaketa, soldata-arrakala, generoaren araberako bereizketa, hala horizontala nola bertikala, eta emakumeek jasaten duten lan-prekarietatea. Egiturazko adierazpide horietan oinarriturik sortzen dira gero pertsonen arteko indarkeriazko hainbat modu sinboliko, besteak beste emakumeen aurkako sexu-jazarpena. Egitura horiek, orobat, generoaren adierazpide ez-bitarrak mehatxatzen dituzte, eta pertsonak zapaltzen dituzte; beraz, ezinbestekoa da sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpen-adierazpenei aurre hartzea.

Euskal GGKEok bide luzea egin dugu garapenerako lankidetzan eta gizarteraldaketarako hezkuntzan; genero-ikuspegia zehar-lerro gisa ezarri dugu, eta emakumeen ahalduzaren aldeko apustu estrategikoa egin dugu, ez soilik



gure jardun eta eginkizunetan, baita gure erakundeen barne-esparruan ere, ekitatearen aldeko ekintza-planak landuta.

Genero-ikuspegia izan da, hain zuzen, euskal lankidetzaren bereizgarri nagusietako bat, baina ezin dugu ahaztu sektore honetan lan egiten dugun pertsonak ere gizarte patriarkal bateko kide garela, eta, beraz, guk ere jokabide matxista izan ditzakegula eta portaera horiek erreproduzitzen ari gaitzkeela, hala gure erakundeen barnean nola tokian tokiko erakunde bazkideekin bat egiten dugun lanean.

Sexu-jazarpena eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena lan-inguruneko indarkeria matxistaren adierazpenak dira, eta, beraz, pertsonen duintasunaren aurkako erasoak dira. Jazarpen horiek, orobat, arriskutsuak dira langileen osasunerako, eta, oro har, laneko arriskuen prebentzioan kontuan hartu beharreko faktorea dira; izan ere, jazarpen horiek bortxazko giroa sortzen dute lanean, lan-errendimenduan eragin kaltegarria dute eta, azken buruan, gure erakundeen misioari ere kalte egiten diote.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea jabetzen da indarkeria matxistaren adierazpen horiek erabat kontraesankorrak direla lantzen ditugun printzipioei dagokienez, eta, horrenbestez, lehentasunezkoa da portaera horiek prebenitzeko, zigortzeko eta/edo desagerrarazteko bidean lagunduko duten tresnak sortzea.

Batez ere, sexu-jazarpena eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena lantzea erabaki dugu, funtsean emakumeei eta sexua-generoa-sexualitatea sistema bitarraren aurka dauden pertsonen eragiten dieten arazoetan indar egiteko, eta sistema horri eusten dion botere-ardatza azaleratzeko; izan ere, botere-ardatz horrek indarkeria eta aurkako giroa sortzen ditu eta pertsonen adierazpen librea eta lan-garapena mugatzen du gure erakundeetan.

Horrek ez du esan nahi erakundeek, beren prebentzio-politikak ezartzean, indarkeria-modu horietara mugatu behar dutenik; beste gogoeta edo jarduera batzuk ere bultzatuz, indarkeria matxistaren adierazpen askotarikoei aurre egiteko. Halaber, batez ere jazarpen mota horiek jorratu arren,



etorkizunean Euskadiko GGKEen Koordinakundeko erakunderen batek edo Koordinakundeak berak protokolo hau berrikusi nahi badu indarkeria matxistaren beste adierazpen batzuei aurre egite aldera beharrezkoak izan daitezkeen prozedurak jasotzeko, aukera izango du horretarako. Bidea egiten hasi nahi dugu, urteen joanean deskribatutako arazo horri sendotasun handiagoz aurre egiteko.

## **2. PROTOKOLOA TESTUINGURUAN**

Protokolo hau ezartzeko borondate politikoa behar da, bai GGKEek bai Euskadiko GGKEen Koordinakundeak berak, lehen-lehenik, berehalako arreta eskatzen duten biktimen beharrezko erantzun diezaieten eta sortutako kaltearen erreparazioa bidera dezaten. Horretarako, koordinatzeko eta esku hartzeko bideak ezarri beharko dira, egoera eta erakunde bakoitzaren arabera era batekoak edo bestekoak, baina, haien oinarrian, beti izango dira indarkeria matxistarekiko zero tolerantziako espirtua eta gure lan-harremanetan indarkeria horrek izan ditzakeen adierazpideak prebenitzeko lan jarraitua egiteko borondatea.

Kontuan izanda sare hau osatzen duten erakundeak askotarikoak direla (batzuek lehendik dute sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerak direla-eta jarduteko protokolo bat, eta beste batzuek ez dute inolako gogoetarik egin arazo horren gainean); aintzat hartuta erakunde bazkideen neurria eta instituzio-gradua ere askotarikoa dela; eta, orobat, kontuan izanda gai honen gainean erakundeek ikuskera eta ñabardura desberdinak izan ditzaketela bai barne-esparruan bai kanpoko lanean, protokolo honek honako puntu hauek proposatzen ditu adosteko:

1.- Euskadiko GGKEen Koordinakundeak tresna bat behar du esparru honetan, osatzen duten entitateek erreferentziatzat har dezaten, printzipioei, helburuei eta prozedurei dagokienez. Erreferentziatzat har dezaten, batez ere, bereziki sustatu nahi dugun esparruan: prebentzioan. Protokolo hau, hain zuzen, prebentziorako tresna bat da.

☐ Izan ere, beharrezkoa da kontzientziatzea, erakunde sozialak garen aldetik, sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko portaerak ezkututzen aritu gaitzkeela hala gure erakundeen egoitzetan nola lan egiten dugun herrialdeetan.

☐ Izan ere, sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoera horiek gure hurbileko errealitatean eta lan egiten dugun tokietan gerta daitezke. Garapenerako lankidetzan sor daitezke, nahiz hondamendi naturalen, gatazka armatuen edo pobrezia-egoeraren beraren ondorioz sortutako krisi humanitarioetan; izan ere, egoera horietan pertsonak egoera bereziki zaurgarrian egoten dira eta erasoen eta erasogileen gaineko inpunitatea handiagoa izan daiteke.

2.- Garrantzitsua da bai biktimek bai Euskadiko GGKEen Koordinakundea osatzen duten erakundeek esku hartzeko eredu edo erreferentzia bat izatea. Hainbat



ikerketak berresten dute jazarpenaren biktimek zailtasunak dituztela bizitzen ari direna onartzeko, besteak beste, portaera batzuk oso normalizatuta daudelako. Zorionez, ordea, kontzientziari eta lan feministari esker, jokabide horiek, gero eta gehiago, onartezintzat jotzen dira. Ikerketa horiek erakusten dute biktimek denbora behar dutela jasaten ari direnaz hitz egiteko, denbora asko; bizitzen ari diren hori auzibidera eramatea ez dela nola edo hala egiten duten urratsa; eta laguntza eskatzea kosta egiten dela, are gehiago jazartzen diena lan-ingurunean arduradunen bat eta/edo itzal handiko norbait denean.

Hori dela eta, uste dugu biktimek beren interes eta aukeren arabera egokien irizten duten moduan jokatzeko eskubidea dutela, protokolo honen bidez, beste aukera bat eskaini nahi diegu komenigarria iruditzen zaienean baliatzeko. Protokoloak, orobat, mekanismo bat proposatzen du beharrea denari entzuteko eta aholku emateko; hain zuzen, biktimek, erakundeetako beste pertsona batzuentzat eta erakundeentzat berentzat sortua eta haien eskura dago baliabide hori.

Badakigu egoera batzuk baloratzea ez dela askotan erraza eta horiek identifikatzeko eta horiek direla eta nola jokatu jakiteko kultura berri bat ari dela sortzen, eta badakigu, halaber, prozedura argi batzuei jarraitu gabe eta inertzia batzuen arabera esku hartzeko joera izan daitekeela. Horrek ekar dezake alderdikerien eta tartean diren pertsonen borondatearen arabera hartzea erabakiak. Hori dela eta, premiazkotzat jotzen dugu esku hartzeko ahalik eta planteamendu argiena eta egokiena izatea. Horrenbestez, esku hartzeko tresna bat da protokolo hau, sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoerak identifikatzeko, biktimei harrera egiteko eta erantzuna emateko prozedurak planteatzen dituelako.

Protokolo honek honako hau du xede: gure errealitate hurbilenean gertatzen diren egoerei erantzuna ematea, baita tokian tokiko bazkideekin batera lan egiten dugun herrialdeetan gerta daitekeenari erantzun ahal izateko oinarriak sortzea ere. Kulturako zenbait alderditan, sinbolikoki, portaera jakin batzuk modu batera hautematen dira eta normalizatuta daude. Hori dela eta, komenigarria da, gure iritziz, alderdi horiek kontuan harturik egokitzea prozedurak, betiere biktimek eskubideak eta bermeak murriztu gabe eta ustezko jazarleen justifikazioei bide eman gabe.

Egokitzapen horretarako, beste zenbait neurriren artean, beharrezkoa da tokiko mugimendu feministekin aliantzak sortzea, gaian adituak diren pertsonen laguntza izatea eta portaera horien inguruko eztabaidak bultzatzea. Protokolo honek zabaldu egiten ditu biktimek aukerak, beren entitateari ez ezik Euskadiko GGKEen Koordinakundera ere jo dezaketelako salatutako gertakariak direla eta konponbide eraginkorrak bilatzera. Horretarako, beharrezkoa da koordinaziorako mekanismo eraginkor eta azkarrak bilatzea; hala, biktimek entitateetako esku-hartzeak errespetatuko dira, baina entitatearen protokolo partikularrek edo entitateek berek aurreikusi gabeko askotariko egoerei konponbidea emango zaie.

Gainera, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak protokolo hau beste era bateko antolamendu-kulturak bultzatzeko tresna bilakatzea du asmo; bestelako kultura horietan, funtsezkoa izango da kontuak eman beharra eta, orobat, erreparazio-



eskubidea jasoko da prozeduran. Horrenbestez, erreparaziorako tresna bat da protokolo hau, biktimei arreta emateko eta jasandako kalteak erreparatzeko bideak proposatzen baititu, biktimen berehalako kalteak ez ezik haien bizitzaren ondorengo faseetan sor daitezkeen gertakarien ondorio eta arrastoak ere erreparatzeko. Halaber, hainbat neurri proposatzen ditu erakundeek ere beren barnean izan diren gertakarien ondorioz sortu diren kalteak erreparatu ahal izan ditzaten; izan ere, sarritan, honako hauen ondorioz sortzen dira kalteak: isiltasuna, gertakari horiek jakiteko eta/edo instantzia arduradunek esku hartzeko atzerapena edota entitatean eta tokiko erakunde bazkidean diharduten pertsonen edo jardueren hartzaile diren pertsonen aurkako giro gaiztoa.

3.- Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta kide diren entitateek konpromisoa hartzen dute beharrezko ekinbideak koordinatzeko, baldin eta GGKEak dokumentu honen aurretik bere protokoloa onartuta baldin badu edo ondoren onartzen badu.

Gerta daiteke biktimak zuzenean Euskadiko GGKEen Koordinakundera jotzeko erabakia hartzea eta ez bere entitatera, eta gerta daiteke bere erakundearen adostutako prozedura eta ebazpenarekin ados egon ez eta Koordinakundera jotzea; era batera edo bestera, edozein arrazoi tarteko dela ere, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bere gain hartzen du gehiegikeria-kasuan nahasita dagoen erakundeari martxan jarritako ekinbideen berri emateko, baita egoera bakoitzari modu egokian erantzuteko beharrezkoak diren komunikazio- eta koordinazio-mekanismoak ezartzeko ere, beti-beti biktimaren babesa eta berme osoa aurretik direla.

4.- Uste dugu erakundeek beren protokoloak eta mekanismo eraginkorrak izatea dela gure sektorean lan egiten duten pertsonentzat ingurune segurua bermatzeko modurik onena, horien bidez jazarpen edo gehiegikeria kasuetan prebentzioa lantzeko eta nola esku hartu jakiteko. Hori dela eta, uste dugu sektorearen sendotasunaren eta konpromisoaren adierazle dela erakundeetan gardentasunezko, konfiantzazko eta gobernu oneko baldintzak izatea, hala biktimek lehen aukera gisa beren entitatearen protokoloa aktibatzea erabaki dezaten gehiegikeriarik edo jazarpen-egoerarik gertatuz gero.

### **3. HELBURUAK**

Hauek dira protokolo honen helburuak:

- Sektoreko pertsona guztiei informazioa eta prestakuntza ematea eta sentsibilizatzea sexu-jazarpenaren eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren inguruan.
- Prebentzio arloan beharrezko neurriak hartzea, jazarpen-egoerarik gerta ez dadin.
- Emakumeek eta gizonek elkarren duintasuna eta integritatea errespetatuko duten lan-ingurune bat sortzea eta zaintzea.
- Horrelako egoeretan esku hartzeko eta biktimei laguntzeko prozedura bat izatea, kasuak ahalik eta azkarren eta protokoloak ezarritako epeen barruan konpontzeko.
- Kaltetutako pertsonen bidezko tratua eta babesa jasotzeko duten eskubidea bermatzea.
- Biktimen eta kaltetutako ingurunearen erreparaziora bideratutako neurriak ezartzea.

### **4. EZARPEN-EREMUA**

Protokolo hau nahitaez bete behar dute Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta bere egiten duten GGKEek. Kide diren erakunderen batekin lotura duten pertsonen edota Euskadiko GGKEen Koordinakundeak berak sexu-jazarpena eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena dela eta jarritako salaketa orori aplikatu ahal izango zaio.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen edo GGKEaren eta pertsonaren arteko lotura hori era askotakoa izan daiteke: kontratatutako langileak, boluntarioak, bekadunak, aholkularitzako langileak... Halaber, erakundeak parte hartzeko ezarritako beste edozein mekanismoren bidez ere izan daitezke pertsona horiek erakunde jakin horretako partaide.

Jakitun gara eta onartzen dugu lan-eremua ez dela mugatzen erakundearen egoitza edo espazio fisikora, harago doala. Lan-eremutzat hartzen dira erakundearen jarduerak egiteko baliatzen diren espazio fisiko guztiak edo erakundearekin loturaren bat duten pertsonen partaidetza hartzen duten espazio guztiak (topaketak, tailerrak, biltzarrak, prestakuntza-saioak, etab.), baita Euskadiko GGKEen Koordinakundeko edo erakunde bazkideetako



kideen bilgune izan daitezkeen espazio ez-formal guztiak ere.

Halaber, sare honetako kide diren GGKEek erantzukizuna hartzen dute tokiko erakunde bazkideei jakinarazteko protokolo honen eta bertan jasotako edukiaren berri, baita dokumentuan tokiko erakunde bazkideentzat berariaz jasotzen diren neurrien berri ere.

Gerta daiteke erakunde batek bere protokoloa izatea baina erakunde horretako pertsonaren batek jazarpena jasan eta nahiago izatea zuzenean Euskadiko GGKEen Koordinakundearen barne prozedura baliatzea. Pertsona horrek eskubide eta aukera osoa izango du horretarako, batez ere bere erakundearen prozedurak ez badio behar adina berme ematen edo erakundearen barne-prozesuaren ebazpenarekin ez bada konforme geratzen.

Biktimak erabakitzen badu bere erakundearen protokoloari jarraitzea, erakundeak aukera izango du Euskadiko GGKEen Koordinakundeari laguntza eta aholkularitza eskatzeko, beharrezko jotzen badu. Entitateak, bere protokoloan aurreikusitako prozesua amaitzean, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko lantalde arduradunari jakinaraziko dio zer konponbide eta neurri hartu duen (betiere biktimaren borondatea eta tartean diren pertsonen pribatutasuna errespetatuz), baita prozedurak eraginkorrak izan diren ala ez eta zer zailtasun izan dituzten ere. Informazio horren bidez Euskadiko GGKEen Koordinakundeak hainbat datu eta elementu eskuratuko ditu protokolo honetan aurreikusitako segimendu-txostena lantzeko. Txosten hori, aldi berean, baliagarri izango da horrelako kasuen prebentzioan eta arazoa errotik desagerrarazteko lanean sektore gisa elkarrekin urratsak emateko, betiere zero tolerantzia oinarritzko politikatzat harturik.

Biktimak prozedura hau aktibatzea erabakitzen badu, nahiz eta bere erakundeak edo lan egiten duen erakundeak bere protokoloa izan, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak horren berri emango dio entitateari, betiere biktimaren onespenearekin. Kasuan-kasuan, ikerketa-batzorde bateratu bat sortzeko aukera aztertuko da, eta, halaber, erakundeko



pertsonaren batek Euskadiko GGKEen Koordinakundearen beraren ikerketa-batzordean parte hartzeko aukera ere aztertuko da. Nolanahi dela ere, erakunde kideari emaitzen eta esku hartzeko prozeduraren berri emango zaio, biktimaren babes egokiak horretarako aukera ematen duenean.

## **5. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA**

Europako Parlamentuaren eta 2006ko uztailaren 5eko Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentarauak, enpleguaren eta okupazioaren arloan gizonen eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoak, jazarpen sexista eta sexu-jazarpena definitzen ditu, eta ezartzen du egoera horiek bereizkeriatzat joko direla, eta ondorioz, debekatu eta zehatu egingo direla, modu egokian eta proportzionalean eta disuasio xedez. Sexu-jazarpenari aurre egiteko Europako Erkidegoko Jokabide Kodea, 1991ko azaroaren 27koa, prebentzioaren alorrean Erkidegoko arau hura garatzen duen arau europarra da.

Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak, Zigor Kodeari buruzkoak, 184. artikuluan xedatzen du sexu-jazarpena, gainera, delitua dela eta espetxe-zigorrekin edo isunarekin zehaturik dagoela, eta zigorra larriagoa izan daitekeela baldin eta erruduna laneko edo hierarkiako nagusitasun-egoeraz baliatzen bada, edo biktima, bere adin, gaixotasun edo egoera dela eta, bereziki ahula bada.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, honela xedatzen du:

- ✓ Beti joko dira bereizkeriatzat sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena (7.3 artikulua).
- ✓ Enpresek “sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, eta prozedura bereziak ezarri, horiek prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko”.

- ✓ “Xede horrekin, langileen ordezkariekin negoziatu beharko diren neurriak ezarri ahal izango dira, hala nola jardunbide egokien kodeak egin eta zabaltzea, informazio-kanpainak gauzatzea edo prestakuntza-ekintzak gauzatzea” (48.1 artikulua).
- ✓ Langileen ordezkariak lagundu beharko dute lanean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzen, horien inguruan langileak sentsibilizatuz eta enpresa-zuzendaritza informatuz berek ezagutzen dituzten jokabideen eta jarreraren gainean, halakoek sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera eragin dezaketenean (48.2 artikulua).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak alor bera aipatzen du. Zehazki, 43. artikuluan, laneko sexu-jazarpenera eta jazarpen sexista definitzen ditu, eta jokabide horien biktimei laguntza juridiko eta psikologiko berehalakoa, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatzeko betebeharra ezartzen die euskal administrazio publikoei.

Horrez gain, bai sexu-jazarpenera bai sexuan oinarritutako jazarpenera izaera psikosozialeko lan-arriskuak dira, eta, beraz, jasaten dituzten pertsonen segurtasunari eta osasunari eragin diezaioke. Alde horretatik, enpresek behar adina neurri hartu behar dituzte langileen laneko segurtasuna eta osasuna babesteko (Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 14. artikulua).

Sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera eragiten duten langileei dagokienez, komeni da gogoratzea bi jazarpen mota horiek urratu egiten dituztela kontratuan ezarritako betebeharrak eta, zenbaitetan, jazarpenaren eragilearen diziplinazko kaleratzea ekar dezaketela. Horrela xedatzen du urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikulua (Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen du dekretu horrek).

Lan Ikuskaritzaren 69/2009 zenbakidun Irizpide Teknikoak prebentzio arloko arau-haustetat hartzen du lan-ingurunean genero-indarkeriaren ebaluaziorik ez egitea eta prebentzio-neurririk ez hartzea (laneko jazarpen eta indarkeria kontuetan Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren jarduerari buruzkoa

da aipatutako irizpide tekniko hori).

Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeak 96. artikuluan xedatzen du nori dagokion bazterketen eta laneko istripuen kasuetan frogatzeko beharra edo frogaren karga:

- ✓ Jarduten duen aldeak aurkeztutako alegazioak aintzat hartuta, sexua, sexu-orientazioa, identitatea, arraza, etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo beste arrazoiren bat dela eta, bazterketaren arrazoizko zantzuak daudela ondorioztatzen bada, edo funtsezko eskubide edo askatasun publikoren bat urratu dela uste izateko ebidentziak badaude, salatuaren eginbeharra izango da hartutako neurrien eta horien proportzionaltasunaren justifikazio objektiboa, arrazoizkoa eta behar beste frogatua aurkeztea.
- ✓ Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko erantzukizunak argitzeko prozesuetan, segurtasuna bermatu behar dutenei edo lesioen nahiz gaixotasunaren eragile izan daitezkeenei dagokie arriskua prebenitzeko edo saihesteko beharrezko neurriak hartu direla frogatzea edo erantzukizuna salbuesteko edo gutxitzeko beste edozein faktore frogatzea. Langilearen erru ez-ausarkeriazkoa ez da izango erantzukizunaz salbuesteko faktorea, ezta laneko ohiko jardunak edo lanak sor dezakeen konfiantza ere.

Beste hainbat lege ere berrikusi ditugu, eta ez dugu horietan sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren prebentzioarekin eta, ondorioz, kasu horietako biktimen arretarekin loturiko aipamenik aurkitu. Zehazki, hauek dira berrikusi ditugun beste legeak: 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa; 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko eskubidea arautzekoa; 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa; 145/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duena; eta 519/2006 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Borondatezko lankideen Estatutua ezartzen duena

## **6. JAZARPEN MODUAK GGKE-ETAN**





GGKEekin lotura duten eta lan egiten duten pertsonen artean uste zabaldua da jazarpenik ez dagoela testuinguru honetan, edozein dela ere jazarpen-modua. Garaia da, ordea, uste oker hori ezbaian jartzeko. Aurrez adierazi dugun moduan, errealitate sozial hori zabaldua dago, eta sektore hau ez da salbuespena. Uste oker horren ondorioz, gainera, kaltetutako pertsonak eta ingurunea sinestu ezinik eta harrিতuta geratzen dira horrelako egoerak sortzen direnean.

Gertatzen da, gainera, zaila dela jazarpenaren adierazpide sotilenetako asko frogatzea eta biktimak berak ez daukala behar adina baliabide portaera horiek esplizitu egiteko, dela bere erakundeak ez duelako prebentziorako, prestakuntzarako eta esku hartzeko baliabiderik, dela ez dagoelako egitura edo figura jakinik biktimak haietara edo haiengana jo eta nola jokatu behar duen jakiteko.

Horrez gain, zaila da horrelako egoeren gainean hitz egitea, harremana hertsiki lan-kontuetara mugatzen ez den lekuetan sortzen baitira; esate baterako, batzarretan, boluntarioen espazioetan, topaketetan edo antzeko jardueretan. Bereziki zaila da hori azaltzea jomugako herrialdeetan erbesteratutako pertsonekin edo erakunde bazkideetan kargu estrategikoak betetzen dituzten pertsonekin gertatzen denean; halako egoeren ondorioz, are gehiago normalizatzen dira portaera horiek kulturen arteko aldearen aitzakiapean.

Zailtasunak zailtasun, onartu egin behar dugu gure testuinguruan izan badirela indarkeria matxistaren hainbat forma, eta lan-inguruneko horien adierazpenak GGKEetan ere gertatzen direla. Hain zuzen, mugimendu feministak auzitan jarri du indarkeriari buruzko pentsamendu patriarkala, eta eztabaidaren erdigunean jarri du emakumeen onespina eskubide bat izatea. Emakumeen onspen hori ez duten jokabide guztiak erasotzat hartzen dira ikuspegi horren arabera.

Ez da erraza izaten ari indarkeriari aurre egiteko modu hori gizartean zabaltzea eta errotzea, baina, nolana dela ere, GGKEak lanean ari dira indarkeria matxistaren agerpen batzuen prebentzioan, bai garapenerako lankidetzaren proiektuetan bai gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuetan.



Halaber, elkarte- sare bat ari da genero-harremanak eta sexua-generoa-sexualitatea entitateak ulertzeko beste modu batzuk bultzatzen, eta, hain zuzen, aurrez aipatutako lanari esker, GGKEak elkarte-sare horretako kide bihurtzen ari dira. Konpromiso hori dela eta, Koordinakundeak bere egiten ditu arazo horri buruz indarrean diren legedietan jasotzen diren definizioak. Baina harago ere badoa; izan ere, uste du gaur egungo testuinguru soziala eta erakundeon berezko izaera kontuan hartuta, definizio horiek ez datozela beti bat gure eguneroko errealitatearekin, horien atzean botere patriarkaleko harremanak geratzen baitira ezkutuan, eta, hain zuzen, gure egunerokoan ohikoagoak diren beste jazarpen-forma normalizatu batzuen oinarrian daude harreman horiek.

## **7. DEFINIZIOAK**

### **7.1. DEFINIZIO OROKORRAK**

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak 7.1 artikuluan honela definitzen du sexu-jazarpena: “sexu-izaerako edozein portaera -hitzezkoa edo fisikoa-, pertsona baten duintasunaren aurka egiteko helburua edo ondorioa duena, bereziki, larderiazko ingurunea, apalesgarria edo laidogarria sortzen denean”.

Sexuan oinarritutako jazarpena, berriz, honela definitzen du 7.2 artikuluan: “pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede edo ondorio duena pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiazko ingurunea, apalesgarria eta laidogarria sortzea”.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak honako definizio hauetan garatzen ditu sexu-jazarpenaren kontzeptua eta haren formak: “sexuan oinarritutako portaera, jasaten duen pertsonarentzat desatsegina eta laidogarria dena. Sexu-jazarpena izateko beharrezkoa da bi alderdi negatibo horiek bat egitea: desiratu gabekoa izatea eta laidogarria izatea”.

Sexu-jazarpenak hainbat adierazpide izan ditzake. Xantaia izan daiteke adierazpideetako bat: zenbaitetan, biktima sexu-konnotazioko portaeretara



behartzen da lanean onuraren bat lortzeko (soldata-igoera, barne-sustapena edo, besterik gabe, enpleguari eustea). Lanean aurkako giroa izatea da beste adierazpen posibleetako bat, jokabide hori dela eta biktima beldurtzeko edo umiliatzeko egoerak sortzen direnean.

Sexu-jazarpenzat kalifikatzen diren portaerak izaera desberdinekoak izan daitezke: fisikoak (indarkeria fisikoa, ukituak edo beharrik gabeko gerturatzeak); hitzezkoak (itxurari, bizitza-estiloari, sexu-orientazioari buruzko iruzkinak eta galderak edo telefono-dei laidogarriak); eta ez-hitzezkoak (txistuak, sexu-konnotazioko keinuak edo objektu pornografikoak aurkeztea). Hona hemen adibide batzuk:

- x Beharrik gabeko eta desiratu gabeko kontaktu fisikoa.
- x Biktimari gay edo lesbiana esatea.
- x Irudi sexualak, argazki, ilustrazio, mezu edo ohar sexualak erakustea, ematea edo uztea.
- x Biktima norbaiten aurka modu sexuarekin igurztera behartzea.
- x Ohar desatseginak eta hitzezko beste jazarpen modu batzuk.
- x Aldatzen ari den bitartean edo komunean dagoela miatzea.
- x Biktimari buruzko idatzi eta mezu sexualak (pintadak edo grafitiak) komunitetako, aldageletako eta abarretako hormetan.
- x Biktimari buruzko zurrumurru sexualak zabaltzea.
- x Begirada lizunak eta sexualitatearekin loturiko keinuak.
- x Material pornografikoa erabiltzea edo erakustea.
- x Norbaiti edo zerbaiti musu ematera behartzea.
- x Arropatik tira egitea modu sexual batean.
- x Sexu izaerako irainak, oharrak, txantxak eta iradokizunak egitea.

Iturria: 4. informazio-orria. Generoa, osasuna eta segurtasuna lanean, Lanaren Nazioarteko Erakundea

Definizio horiek guztiak erreferentzia garrantzitsua dira; izan ere, jazarpena lan-ingurune arazo dela onartzen dute, eta arreta eta konponbidea eman behar zaiola aldarrikatzen dute. Hala ere, ondoren aurkeztuko ditugun definizioak eta adibideak lotuago daude sektore honetako erakundeen kulturarekin; izan ere, parte-hartezko prozesu batean landu dira, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko kide diren erakundeetako emakumeek esku hartu dute prozesu horretan eta berek bizi edo ikusi izan dituzten egoera errealak dira.



Jazarpenaren gaiak indar handia hartu du azken bi urteotan, eta, horrenbestez, garrantzitsua da mugimendu feministek horren gaineko hausnarketan zer aurrerapauso eman dituzten kontuan hartzea. Arazoaren kontzientzia izateak lagundu egiten du jazarpena zer den ulertzen eta horren gaineko pertzepzioa zabaltzen. Hortik abiatuta, etengabe berrikusi beharko ditugu hain normalizatua dagoen jokabide horren adierazpenak, landu beharreko prebentzio-politikak zinez eraginkorrak izango badira.

## **7.2. KIDE DIREN ERAKUNDEEN ESPARRURAKO DEFINIZIOAK**

Jazarpena une jakin bateko ekintza izan daiteke edo behin eta berriro errepikatzen dena, eta haxe du helburu: modu fisikoan, psikologikoan edo moralean, nahita edo nahi gabe, erabaki batzuk hartzera behartzea, eta biktimaren aurkako eta hura beldurtzeko edo umiliatzeko giroa sortzea. Jazarpenaren bereizgarrietako bat da biktimaren onespina urratzen duela, edo haren onespina behartua dela, jazarlearen goragoko hierarkia dela eta. Botere-posizio batetik, aurrez aurre edo modu birtualean eragin daiteke jazarpena, eta portaera horrek mina eragiten du, nahita edo nahi gabe. Zenbaitetan, ordea, sexua-generoa- sexualitatea sistemarekin loturiko baldintza kulturalen ondorioz, biktimak ez dira gai modu esplizituan eta/edo berehala jazarpena bereizteko; areago, aipatutako sistema horrek indarkeria-modu horren errua egozten die biktimei berei.

Jazarpenak, edozein dela ere portaera horren adierazpidea, laneko giro gaiztoa sortzen du, eta batez ere biktimei egiten die kalte, baina haien inguruko beste emakume eta pertsona batzuei ere eragiten die, batik bat, jazarpenari inguruneko pertsonen ukoa, isiltasuna eta konplizitatea gehitzen bazaie.

Zenbaitetan, jazarpena xantaiaren parte da, eta biktimaren lan-baldintzei eragiten die; biktimarentzat, gainera, zaila izaten da baldintzen okertze hori jazarpenaren ondorio denik frogatzea. Horrelakoetan, ohartarazi beharrekoa da onespina dagoen kasuetan ere, onspen hori behartua dela beti, hierarkiazko harremanak eta boterea eskuetan duenak eragiten duen presioak



ez baitio beste biderik uzten biktimari.

Jazarpenaren edukiaren izaera aintzat hartuta, honako hauek bereizten ditugu:

x Sexu-jazarpena: Gorputzaren balorazioa, sexu-izaerako jokabideak inposatzea eta sexualitatearekin zerikusia duen guztia da jazarpen mota honen bereizgarri nagusia. Botere-harreman baten adierazpena den heinean, emakumeak zein gizonak izan daitezke biktimak, baina emakumeek jasaten dute batez ere jazarpen hori, gizonen plazererako objektutzat hartu izan direlako eta hierarkia-posizioetan gutxiengoak direlako. Nolanahi dela ere, erasotzaile gehienak gizonak dira.

x Sexuan oinarritutako jazarpena: Eredu bitarrari eta tradizionalari jarraitzen dioten genero-identitateak eta rola jartzen dira erdigunean, eta, beraz, horiekiko haustura oro aitzakia bihurtzen da jokabide oldarkorrak edota bortxazkoak agertzeko. Emakumeak zein gizonak izan daitezke biktimak, eta, zer testuingurutan gertatzen den, tradizioz gizonenei edo emakumei egotzi zaizkien portaeren “normaltasuna” auzitan jartzen duten adierazpenak zigortzea da jazarpen horren helburua.

x Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena: Sexu eta/edo genero bereko beste pertsona batekiko erakarmen emozional, erromantiko edo sexuala erakusten duten adierazpenen arbuioa da jazarpen mota horren bereizgarri nagusia (lesbofobia, homofobia eta bifobia)<sup>1</sup>.

## SEXU-JAZARPENA

Jazarpen-modu honen adibide dira behin eta berriro sortzen diren zenbait adierazpen, hala nola:

x Itxura fisikoari buruzko iruzkin desegokiak.

x Emakumeen itxurari eta janzkerari buruzko aipamenak, inork eskatu gabekoak; adibidez, “badirudi horren bila zabiltzala”, “okasio handietarako

<sup>1</sup>Jaiotzean kanpoko genitalen arabera esleitzen diren genero-identitateen edo sexu biologikoaren aldean beste sexu batekoa dela sentitzen duten pertsonen aurkako jazarpenari buruzko eztabaida egiteko dago oraindik (transfobia)



gona jantzi duzu” edo “bai polita etorri zarela gaur!”.

x Itxurarekin loturiko beste ezaugarri batzuei buruzko iruzkin desegokiak (orrazkerari, pisuari eta abarrei buruzkoak). Emakumeen gorputzari eta haien erabaki estetikoari buruzko iritzia emateko (inork iritzi hori eskatu gabe) eta balorazioa egiteko eskubidea normalizatzen dute iruzkin horiek.

x Laneko harreman baten esparruan adjektibo desegokiak erabiltzea, hala nola “poxpolin”, “maitea”, “eder hori”... Halakoek areagotu egiten dute hartzailearen ondoeza, tartean botere- eta/edo hierarkia-harreman bat dagoenean.

Jokabide hauek ere bai:

x Gehiegizko eta beharrik gabeko hurbiltze fisikoa: musuak kopetan, besarkadak, eskua izterrean jartzea, batez ere jokabide hori soilik lantaldeko emakumeekikoa denean.

x Txantxa sexualki esplizituak; esaterako, "ba, ematen du horren bila zabiltzala".

x Muturreko zaintza erakusten duten jarrerak.

x

#### SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

x Lantaldearekin erlazionatzeko modu desegokiak, jarrera hierarkikoak eta sexistak nahasiz. Modu desegoki horiek areagotu egiten dira jazarleak ardura handiagoko postuak eskuratu ahala.

x Lantaldearekin erlazionatzeko moduan oso desberdin tratatzea sexu batekoak eta bestekoak; adibidez, “polit hori” edo “zu bai jatorra” esapideak erabiltzea emakumeekin eta ez gizonekin. Horrelakoak normalizatu egiten dira, eta, halaber, ukatu egiten dira kaltetutako emakumeak azaleratzen dituenen.

x Laneko emaitzetan eta denboraren erabileran emakumeen gaineko kontrol handiagoa, eta prestakuntzarako, bileretara joateko, orduak berreskuratzeko eta beste zenbait eginkizunetarako justifikazio eta baimenekin zorrotzago jokatzea.

x Behin eta berriro aipatzea emakumeek oro har eta bileretan bereziki



gutxi parte hartzen dutela, eta gizonen parte-hartze eskasari buruzko aipamenik inoiz ez egitea.

x Gurasokeriaz jokatzera eta lantaldeko emakumeen gaitasun tekniko eta/edo politikoetan konfiantza gutxi izatea, emakumeen lorpenak haur txikienak balira bezala juzgatuz eta haien gain kontrol eta gainbegirada zorrotzagoa ezarriz.

#### SEXU-ORIENTAZIOAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

x Ziurtzat ematea bikotea aipatzen denean bikote heterosexuala dela beti.

x Ziurtzat ematea haurdunaldia harreman heterosexual baten emaitza dela beti.

x Beste herrialde batzuetako erakunde bazkideekin harremanetan jartzean ohartaraztea sexu-orientazioaren berri publikoki ematea ez dela beharrezkoa, non eta ez den heterosexuala.

x Sexu-orientazioa ezkutatzea, eta bazterketarako edo indarkeriarako baliatzea.

x "Maritxu", "marimutil" eta antzeko beste zenbait adjektibo normalizatzea, iraintzeko asmoarekin esaten direnean.

x Esparru formal eta ez-formaletan ziurtzat ematea mutiko edo neska batek beti ama eta aita bat dituela.

x Familia aipatzen denean, aniztasuna baztertzen duten eremuak sortzea

## **8. PRINTZIOPIOAK ETA BERMEAK**

- ✓ Errespetua eta babesa. Protokolo honetan aurreikusitako esku-hartzerako prozedurak errespetua eta babesa bermatzen du. Diskrezioz jokatu da kaltetutako pertsonen intimitatea eta duintasuna babesteko.
- ✓ Informazioa izateko eskubidea. Tartean diren pertsona guztiek eskubidea dute egindako prozeduren eta lortutako akordioen nondik norakoei buruz informazio egiazkoa eta azkarra izateko.
- ✓ Bidezko tratua. Tartean diren pertsona guztiei inpartzialtasunez entzungo zaiela eta bidezko tratua emango zaiela bermatuko da. Prozeduran esku hartzen duten pertsona guztiek fede onez jokatu dute salatutako gertaerak argitzeko abian jarriko den ikerketan.
- ✓ Arreta eta azkartasuna. Prozedurak zenbait epe izango ditu fase bakoitza ebazteko, eta egoerari berehalako konponbidea emateko ahalegina egingo du.
- ✓ Konfidentzialtasuna. Esku-hartzeetan bildutako informazioa konfidentziala da, eta konfidentzialtasun hori betebeharrak etiko eta loteslea da ikerketaz eta ebazpen-proposamenaz arduratzen direnentzat, GGKEko eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeko barneko nahiz kanpoko pertsonentzat.
- ✓ Prestatutako pertsonen laguntza. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak gaian adituak diren pertsonen parte-hartzea izango du prozedurak eta ebazpenak bermatzeko.
- ✓ Lankidetzat. Prozeduran zehar deituak diren pertsona guztiek laguntzeko eta prozeduran esku hartzeko betebeharrak dute.
- ✓ Etor daitezkeen errepresaliak direla eta babesa ematea. Inork ez du errepresaliarik jasan behar jazarpen-egoera baten berri emateko edo salatzeko prozesu batean parte hartzeagatik.
- ✓ Kautelazko neurriak. Prozedurak irauten duen denboran eta amaitutzat eman arte, tartean diren pertsonen kautelazko neurriak hartzea proposatu diezaioke GGKEari: lanpostuz aldatzea, lanaldia berrantolatzea, ordaindutako baimena ematea eta abar. Neurri horiek ez dute, inolaz ere, salaketa jarri duen pertsonaren lan-baldintzak eta/edo soldata murrizterik ekarriko, eta, kasu guztietan, berak onartu beharko ditu berariaz.
- ✓ Osasuna zaintzea. Jazarpen-egoera bat jasan ondoren osasunean kalteren bat izan duten pertsonen osasun-arreta eta -orientabidea eta mediku-txostena eska ditzakete Lan-arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren bidez.
- ✓ Kaltearen erreparazioa. Hauek izango dira jazarpen-kasu baten ondoren aplikatutako erreparazio-neurrien helburu behinenak: biktimei arreta ematea eta jazarpenaren eraginez (edozein dela ere portaera horren adierazpena)



hondatutako laneko giroa berreskuratzea.

## **9. PREBENTZIO-NEURRIAK**

Prebentzioaren arloan, sexu-jazarpenik eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenik ez sortzeko edo gutxienez zailtzeko esku-hartze proaktiboak bultzatuko ditugu batez ere. Alde horretatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak eta hura osatzen duten GGKEek honako konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

- ◆ Erakundeek deklarazio bat onartuko dute sexu-jazarpena eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena direla eta zero tolerantzia agertuko dutela berresteko. Horretarako, erakundearen erabaki-organo gorenak Zero Tolerantziako Dekalogoia sinatuko du (I. eranskinean dago eskueran).
- ◆ Aipatutako dekalogoia ageriko lekuren batean jarriko dute erakundearen.
- ◆ Tokiko bazkideei ere dekalogo hori erakundearen ageriko leku batean jartzeko eskatuko diete.
- ◆ Tokiko bazkideei protokolo honen berri emango diete.
- ◆ Erakundearen sexu-jazarpena eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena hautemateko, zailtzeko eta/edo geldiarazteko berdintasun-politikak onartuko dituzte.
- ◆ Lankidetzaren proiektuetan eta ekintza humanitarioko edo larrialdiko proiektuetan, sexu-jazarpenari eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko neurriak jasoko dituzte (arriskuen ebaluazioa, segurtasun-plana, bideragarritasuna eta iraunkortasuna, generoa zeharlerrotzat hartzea, segurtasun-neurriak, jokabide-kodeak, tokiko bazkideekin kontratuak, langileen hautaketa, etab.).



Langileak hautatzeko prozesu guztietan sexu-izaerako delituen ziurtagiria eskatuko dute adin txikikoekin lan egiten denean, Espainiako legediak agintzen duen moduan, eta, horrelako egiaztagiri ofizialik ez dagoen herrialdeetan ere, antzeko erreferentziak exijituko dituzte. Alderdi horri arreta berezia jarriko diote ekintza humanitarioko edo larrialdiko proiektuetan; izan ere, herritarrak egoera ahulagoan egoten dira halakoetan, eta egoerak eragindako presioa handiagoa izaten da.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak konpromisoa hartzen du sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren prebentziorako prestakuntza emateko. Normalean, bi urtean behin emango da prestakuntza hori, baina erakundeek prestakuntza hori jasotzeko edo gaiarekin lotura duten beste prebentzio-jarduera batzuk egiteko eskakizun zehatzik izanez gero, aukera izango da horiei erantzuteko.

## **10. ESKU-HARTZEKO PROZESUA**

Atal honetan zehazten den esku-hartzeko prozesuak ez du alde batera uzten, mugatzen edo baldintzatzen, inolaz ere, prozedura judiziala. Biktimek auzibidera jotzeko eskubidea dute, eta, horri jarraitzea erabakiz gero, bi prozedurak paraleloan bideratu ahal izango dira, harik eta epaileak epai irmoa ematen duen arte.

Halaber, protokoloa aktibatzeak ez du esan nahi, inolaz ere, GGKE bazkide batek gai honi buruz izan dezakeen protokolo propioa aplikatu ezin denik.

## **ERREFERENTZIAZKO LANTALDEA**

Protokolo hau martxan jartzeko, erreferentziazko lantalde bat izendatu behar da; hain zuzen, lantalde hori arduratuko da salaketak jasotzeaz eta ikerketa-fasea martxan jartzeaz. Sare hori osatzen duten entitate guztiek eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak berak betebeharra dute lantaldea osatzen duten kideen izen-abizenak eta kontakturako bidea jakinarazteko. Hauek izango dira

lantalde horretako karguak:

- Koordinazio orokorra
- Genero arduraduna
- Gobernu Batzordean generoko eleduna
- Tartean den GGKEko pertsona bat, beharrezko eta egoki dela uste bada

Horietako bakoitzarekin harremanetan jartzeko modua II. eranskinean jasotzen da. Kargu horietan pertsonaren bat aldatzen den bakoitzean, eranskina berrikusi eta eguneratu egingo da, eta horren berri emango zaie GGKE bazkideei.

Erreferentziazko lantalde horretan kide guztiak aldi berean ez aldatzea bermatuko da. Esperientziaren jarraitutasuna mantentzeko, aldaketak egitea egokitzen denean, kideetako bik lantaldean jarraitzea bermatuko da.

Hauek izango dira lantalde horren betebeharrak:

- Kaltetutako pertsonari informazioa eta aholkularitza ematea.
- Prozesu guztian kaltetutako pertsonaren ondoan egotea.
- Erreferentziazko entitateari kasu bat izan dela eta protokolo hau aktibatu dela jakinaraztea, betiere biktimarekin adostuta.
- Kaltetutako pertsonak lan egiten duen erakundeari kautelazko eta/edo prebentziorako neurriak proposatzea, beharrezko jotzen badu.
- Prozeduratik urruntzea, erreferentziazko lantaldeko kideren bat salatzailearen edo salatuaren erakunde bereko kidea baldin bada.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea osatzen duten entitateei aholku ematea, horrela eskatzen dutenean. Aholku emateko hainbat modu izan daitezke: ikerketa-prozesuan esku hartzea, pertsona adituak gomendatzea edo gai bati modu egokian aurre egiteko beste edozein.

## **1. FASEA: KOMUNIKAZIOA ETA AHOLKULARITZA**

### HASIERA

Kaltetutako pertsonak edo jazarpenezko jokabideak hautematen dituen beste edonork sexu-jazarpeneko edo sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko kasuren baten berri ematen duenean abiatzen da fase hori. Jakinarazpena nahi duen moduan egin dezake: aurrez aurre, telefono bidez edo posta elektronikoaren bidez.

Fase hori abiarazten duen pertsona ez bada biktima, erreferentziazko lantaldea, lehen-lehenik, harekin harremanetan jarriko da, gertatutakoari buruzko haren bertsioa jakiteko.

Biktimaren erakundeak bere protokoloa baldin badu, baina hala ere Euskadiko GGKEen Koordinakundearena aktibatzea erabakitzen badu, erreferentziazko erakundeari emango zaio horren berri, elkarrekin eta betiere biktimaren adostasunarekin, koordinazio-modu onena aztertzeko.

### HELBURUA

Jazarritako pertsonari informazioa, aholkua eta laguntza ematea eta II. fasea prestatzea: barne-salaketa eta ikerketa.

### IRAUPENA

Gehienez ere 3 lanegun.

#### 1. FASEAREN EMAITZAK

☐ Kaltetutako pertsonak barne-salaketa bat jartzeko erabakia hartzea; kasu horretan, prozesuaren II. faseari emango zaio hasiera.

☐ Kaltetutako pertsonak barne-salaketarik ez jartzeko erabakia hartzea, eta erreferentziazko taldeak ondorioztatzea ez dagoela ebidentziarik jazarpen-egoera bat egon daitekeela uste izateko. Kasu horretan, itxi egiten da prozesua eta kaltetutako pertsonari itzultzen zaio emandako dokumentazioa,



halakorik balego.

□ Kaltetutako pertsonak salaketarik ez jartzeko erabakia hartzea, baina erreferentziazko taldeak ondorioztatzea badagoela ebidentziarik jazarpen-egoera bat egon daitekeela uste izateko, eta egoera horren larritasuna aintzat hartuta, beste emakume batzuk arriskuan egon daitezkeela edota jazarpenak jarraitu eta okerrera egin dezakeela pentsatzeko. Egoera horretan, erreferentziazko lantaldeak kanpoko aholkularitza baten laguntza izan dezake, esku-hartzea diseinatzeko eta egoki iritzitako neurriak ezartzen laguntzeko.

## **2. FASEA: BARNE-SALAKETA ETA IKERKETA**

### HASIERA

Lehen fasearen amaieran eginiko salaketarekin abiatzen da. Salaketa idatziz aurkeztu behar zaio erreferentziazko lantaldeko kide bati, III. eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

Jazarpen-gertakarien oinarrian dauden zantzuak aztertu ondoren, erreferentziazko lantaldeari dagokio salaketaren larritasuna baloratzea, bai prebentzio-neurriak proposatzeko bai dagokion ikerketa egiteko.

Protokolo hau bultzatu duten arrazoiak aintzat hartuta eta gertakari horiek bereizteko eta frogatzeko izan ohi diren zailtasunak kontuan izanda, erreferentziazko lantaldeak erabaki egin beharko du nori dagokion prozesu horretan frogaren karga, Gizarte Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 86. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, batez ere jazarpen-egoerak ondoriorik izan badu kaltetutako pertsonaren lan-baldintzetan edo arriskuan jarri badu haren enplegua. Hau da, jazarpena xantaia bihurtu bada.

Erreferentziazko lantaldeak gaian aditua den pertsona baten laguntza izango du prozeduraren fase horretan.



## HELBURUA

Gertakariak zorrotz eta zehatz ikertzea, eta ikerketaren txosten bat osatzea, jasotzeko jazarpen-egoerarik badagoen ala ez eta egoeraren ezaugarriak eta larritasuna zein diren, eta esku hartzeko neurriak proposatzeko.

IRAUPENA: 15 eta 20 lanegun artean.

## 2. FASEAREN EMAITZAK

Txosten bat egingo da, III. eranskinean zehaztutako ezaugarriekin. Tartean diren pertsonak zer entitaterekin duten lotura, entitate horretako edo horietako erabaki-organo gorenari igorriko zaio txostena. Txostena idatziz igortzeaz gain, erreferentziako lantaldeko gutxienez pertsona bat erakundeko erabaki-organo gorenarekin edo organo horrek delegatutako pertsonarekin bilduko da, honako informazio hau jakinarazteko: protokolo hau aktibatzekeo zer irizpideri jarraitu zaion, erreferentziako lantaldearekin zer koordinazio-mekanismo erabili diren ikerketarako, eta txostenaren edukia eta proposamenak zein diren.

### **3. FASEA: EBAZPENA**

#### HASIERA

Erakundeko erabaki-organo gorenak edo organo horrek delegatutako pertsonak erreferentziazko lantaldearen txostena jasotzen duenean hasiko da.

#### HELBURUA

Erakundeko edo erakundeetako erabaki-organo gorenak ebazpen bat ematea.

IRAUPENA: Gehienez ere 10 lanegun txostena jasotzen denetik, edo entitateak eskatutako denbora, haren baldintzen arabera eta egoerak berriro biktimarik ez eragiteko zentzuzko denbora gainditu gabe.

### **3. FASEAREN EMAITZAK**

Ebazpen bat, bi zentzu hauetakoren batean:

- Jazarpen-egoeraren bat izan dela frogatzeko nahikoa ebidentzia baldin badago, frogatutako jazarpen-egoera bati dagokion zehapen-espedientea abiatuko da, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira.
- Ez badago ebidentzia nahikorik jazarpen-egoera frogatzeko, artxibatu egingo da salaketa.

Erakundeko erabaki-organoak azalpen gehiago emateko eskatu ahal izango du, baita bigarren bilera bat ere, prozedurak eta proposamenak baloratzeko. Prozesu hori ez da 10 lanegun baino gehiago luzatuko.

### **Erakundeko erabaki-organo gorenaren betebeharrak**

- Ebazpena II. fasean igorritako txostenean oinarritzea.
- Ebazpenean honako informazio hau jasotzea: salatzailea eta salatua nor den jakiteko datuak, salaketaren arrazoa eta egiaztatutako gertakariak.



- Salatzaileari, salatuari eta erreferentziazko lantaldeari ebazpena modu frogagarrian bidaltzea.
- Jazarpen-egoera dagoela frogatzeko nahikoa ebidentzia balego, IV. Faseari (erreparazioa) hasiera ematea.
- Espedientearen amaieran salatua zigortu ala ez, prozedura itxi eta 6 hilabetera eta urtebetera, erreferentziazko lantaldeari jakinaraziko zaio zer aldaketa izan den prozeduran nahasitako pertsonen lan-egoeran.
- Erakundeak ez badu aurrez azaldutakoa betetzen, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak zehapen-espedientea abiarazi ahal izango du entitate horien aurka. Espediente horrek, azken buruan, entitate hori kanporatzea ere ekar dezake, baita erakunde finantzatzaileei txosten bat bidaltzea ere; txosten horretan adieraziko da hartutako konpromisoak alde batera utzita entitateak ez duela jokatu protokolo honetako printzipioen arabera.

#### **4. FASEA: ERREPARAZIOA**

##### HASIERA

Tartean den edo diren erakundearen edo erakundeen erabaki-organo gorenak landutako ebazpenarekin abiatzen da fase hori.

##### HELBURUAK

Biktimei eragindako mina eta kaltea erreparatzea, erreferentziazko lantaldearen gomendioak eta biktimak nahiz erakundeko beste pertsona batzuek eskatuta edo norberaren ekimenez ezarritakoak aintzat hartuta. Jazarpen-prozesuaren eraginez kaltetutako lan-giroa bere onera ekartzeko neurriak hartzea.

**IRAUPENA:** Neurriak proposatzeko eta laneko giroa bere onera ekartzen lagunduko duten neurriak martxan jartzeko, 20 laneguneko epea izango da gehienez ere, erakundeak txostena egiten duenetik zenbatzen hasita.





Biktimaren erreparaziorako neurriak martxan jartzeko, biktimak berak egoera eta ebazpena barneratu ahala eskatzen duena hartuko da kontuan. Horiek martxan jartzeko epea gehienez ere urtebetekoa izango da, baina salbuespen egoeretan gehiago ere izan daiteke.

#### 4. FASEAREN EMAITZAK

Neurri hauetakoren bat edo proposatutako beste batzuk martxan jartzea:

- Biktimaren erreparaziorako neurriak:
- Gertakariak eta horien gainean hartutako ebazpenak ezagutzera ematea, biktimak prozesuan parte har dezan ahalegina eginez, betiere berak nahi duen neurrian.
- Biktimak eskatutako tratamendu psikologikoaren diru-gastuak ordaintzea; berak egoki ikusten duenean eta bere konfiantzazko profesional baten eskutik jasoko du tratamendu hori.
- Lan arloko kalteen eta kalte moralen diru-ordaina ematea.
- Kaltetutako bere inguruneak arreata morala edo psikologikoa behar izanez gero, eskakizun horiei erantzutea.
- Kasua dokumentatzea, erakundean izan daitezkeen erresistentzia-neurriaketa kasua publiko egiteko izandako zailtasunak azpimarratuz, erakundearen historiaren parte den heinean kasuaren berri emateko.
- Jazarleari ezarritako zehapen-neurrien berri ematea eta biktimarekin batera zer babes-neurri hartuko diren adostea, baldin eta erakundean jarraitzea erabaki badu.
- Laneko giroa bere onera ekartzeko erreparazio-neurriak:
- Gertakariak eta horien gainean hartutako ebazpenak ezagutzera ematea, kaltetutako pertsonak edo ardura duten pertsonak prozesuan parte har dezaten ahalegina eginez, egoki ikusten bada.



- Jazarpenaren adierazpen, kausa eta ondorioei buruzko prestakuntza-saioak ematea.
- Laneko arriskuen prebentzio-mekanismoak hobetzea, eta arrisku horien artean jazarpenaren adierazpen guztiak berariaz jasotzea.
- Banakako arretarako eta arreta kolektiborako zerbitzu bat martxan jartzea, langileek jazarpen-prozesuari eta horren ebazpenari buruz izan ditzaketen kontsultei erantzuteko.

Gertakariak beste herrialde batean gertatu badira eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen esku-hartzea eskatzen bada, erreferentziazko lantaldeak, kanpoko aholkularien laguntzarekin, aholkularitza emango die GGKEei, kasu jakin horretan esku hartzeko.

Beste herrialde batean izan diren gertakariak ikertzea eta horiei buruzko informazioa jasotzea oso konplexua denez, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak gaur egun ez du bideragarritzat jotzen protokolo hau, bere horretan, tokian bertan aplikatzea.

Hurrengo atalean zehazten den urteko segimendu-txostenean, datozen ekitaldietan Euskadiko GGKEen Koordinakundearen esku-hartzea hobetzen lagundu dezaketen baliabide eta sargaiak jasoko dira.

## **11. SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA**

Protokolo hau onartu eta martxan jartzen den lehen urtean, aholkularitza-eskaera eta esku-hartze guztiak dokumentatuko dira, proposatutako prozeduretan hautematen diren gabeziei edo kontraesanei konponbide azkarra eta arina eman ahal izateko. Horretarako, GGKEek gertatutako kasuen berri emango diote Euskadiko GGKEen Koordinakundeari. Análisi horretatik, protokolo hau hobetzeko proposamenak sor daitezke.

Bi urtean behin, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Barne Koherentziako taldeak erreferentziazko lantaldean zer pertsona eta funtzio aldatu erabakiko du. Aldaketa horiek erabaki eta gero, haien izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa jakinaraziko dizkie erakunde guztiei eta IV. eranskina aldatuko du. Eranskin hori eskura izango da Euskadiko GGKEen Koordinakundearen web-orrian.

Bi urtean behin, halaber, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak protokolo honen VI. atalean prestakuntzaren arloan hartutako konpromisoarekin bat etorritik, erreferentziazko lantaldeak dokumentu honi atxikitako erakundeen ordezkariak esanguratsu bat deituko du, protokoloaren erabilgarritasuna eta erabilera ebaluatzeko eta horren segimendua egiteko.

Honako datu eta informazio hauek aztertuko dira: aurkeztutako salaketa kopurua, erakundearekin lotura duten pertsonen zenbat aldiz kontsultatu duten protokoloa, jazarpena dela eta Zero Tolerantziako Dekalogoaren erakundearen ageriko leku batean jartzeko konpromisoa eraginkorra den ala ez, eta agiri honetan onartutako beste neurri batzuk. Erreferentziazko lantaldeak segimendua egiteko eta ebaluatzeko aurrez zehazten dituen gaiak ere aztertuko dira.

Protokoloak indarrean lau urte betetzen dituen bitartean, eta, bi urtean behin egindako segimendu- eta ebaluazio-txostenak kontuan izanda, Batzar Nagusiari emango zaio onartutako protokoloaren baliagarritasunaren berri, eta, horrela badagokio, dokumentua aldatzeko edo hobetzeko proposamenak egingo dira.

# **1. ERANSKINA. LAN-INGURUNeko SEXU-JAZARPENARI ETA SEXUAN EDO SEXU-ORIENTAZIOAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI AURRE EGITEKO ZERO TOLERANTZIAKO DEKALOGOA**

## **ERAKUNDE HONEK ZERO TOLERANTZIA ADIERAZTEN DU LAN-INGURUNeko SEXU-JAZARPENARI ETA SEXUAN EDO SEXU-ORIENTAZIOAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI DAGOKIENEZ**

### Erakunde honek:

- 1.- Konpromisoa du emakumeen berdintasun eraginkorra lortzeko.
- 2.- Neurriak hartzen ditu lan-ingurunean sexuan oinarritutako inolako bereizkeriarik eta bazterketarik ez sortzeko.
- 3.- Ez du onartzen langileen, tokiko bazkideen, herritar onuradunen eta erakundearekin loturaren bat izan dezaketen beste edozein pertsonaren askatasuna, duintasuna, osotasun fisikoa eta psikikoa urra dezakeen inolako portaerarik.
- 4.- Lanaren kalitatea eta langileen osasuna ziurtatzeko lan egiten du.
- 5.- Langileak sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren aurka babesteko prebentzio-politikak eta jazarpenaren kontra jarduteko politikak aplikatzen ditu modu arduratsuan.
- 6.- Sexu-jazarpenaren eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpenaren aurka jarduteko protokolo bat du, pertsona guztiak errespetatuko dituen lan-ingurune seguruak ziurtatzeko.
- 7.- Erreferentziazko pertsona edo lantalde bat dauka, oso eskura eta erraz aurkitzeko moduan, jakinarazpenak eta salaketak bideratzeko.
- 8.- Erakundeetako langileei informazioa eta prestakuntza ematen die eta zuzendaritzeari edo erabaki-organoei, prestakuntza, desiratu gabeko jokabide hauekin lotura duten gaien inguruan.
- 9.- Diziplina-neurri zorrotzak ezartzen ditu sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoerak frogatzen diren kasuetan.
- 10.- Erakundearen barnean kasu horiek salatzeko ereduak jartzen ditu interesa duten pertsonen eskura, eta haien konfidentzialtasuna, datuen babesa eta ikerketa-prozesuan azkar eta arduraz jokatzeko konpromisoa bermatzen ditu

## 2.ERANSKINA. SALAKETA-EREDUA

Eskatzailea:

- Kaltetutako pertsona:
- Lekukoa edo egoeraren berri duen langilea:
- Beste batzuk:

Jazarpen-mota:

- Sexu-jazarpena
- Sexuan oinarritutako jazarpena
- Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena

Kaltetutako pertsonaren datuak:

- Izen-abizenak:
- NAN:
- Sexua: Emakumea/Gizona/Beste bat
- Erakundea:
- Parte-hartzearen maila:
- Langilea
- Boluntarioa
- Bekaduna
- Aholkularia
- Beste batzuk

Harremanetarako telefonoa:

Gertakarien deskribapena (lekukorik baldin bada, adierazi haien izen-abizenak):

Erantsitako dokumentazioa:

- Bai (zehaztu)
- Ez

Herria eta data:

Interesdunaren sinadura:

### **3. ERANSKINA. ERREFERENTZIAZKO LANTALDEAREN BETEBEHARRAK ETA TXOSTENAREN EZAUGARRIAK**

#### **Betebeharrak**

- Salaketa eta atxikitako dokumentazioa aztertzea.
- Salatzailearekin elkarrizketa izatea.
- Salatuarekin elkarrizketa izatea.
- Izan daitezkeen lekukoak elkarrizketatzea.
- Sortutako agiri guztiak kudeatzea eta zaintzea, konfidentzialtasuna bermatuz.
- Biktima zer erakundetako kidea den jakinik, erakunde horrekin harremana bideratzea.
- Biktima kideen artean duen erakundeak bere protokoloa baldin badu, eta biktimak Euskadiko GGKEen Koordinakundeko protokoloa aktibatzea erabaki badu, erakundearekin batera ikerketa-prozesuan nola parte hartu aztertzea.
- Salatzaileak zer erakunderekin duen lotura jakinik, erakunde horri kautelazko neurriak eskatu ala ez aztertzea.
- Protokoloan ezarritako arduraz eta azkartasunez jardutea.
- Beste herrialde batzuetan egiten diren prozesuetan aholku ematea, eta, ad hoc sortutako ikerketa-batzordean parte hartzea, beharrezkoa balitz.
- Lantaldeari dagozkion zereginen ondorioz sortutako beste guztiak.

#### **Txostenaren ezaugarriak**

- Salatzailearen eta salatuaren identifikazioa, honako datu hauen bidez: izen-abizenak, erakundearekin zer lotura duen (boluntarioa, langilea, onuraduna...), eta bien artean zer hierarkia-lotura dagoen, halakorik balego.
- Erreferentziatzko lantaldeko kideen artean ikerketan parte hartu duten guztien identifikazioa, honako datu hauen bidez: izen-abizenak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin zer lotura duten (zuzendaritza, lantalde teknikoa, GGKE bazkideren bateko langilea edo boluntarioa...).
- Kasuaren aurrekariak, salaketa eta inguruabarrak.
- Egindako jarduketei buruzko informazioa (frogak, gertakari nagusien laburpena eta eginiko jarduketak, etab.), eta biktimaren eta erasotzailearen entitatearekin ikerketaldirako adostutako koordinazio-moduak, halakorik adostu bada.
- Lekukoei elkarrizketak egin bazaizkie, ez da haien izen-abizenik edo identifikazio-daturik jarriko, konfidentzialtasun-konpromisoa bermatzeko.
- Izan daitezkeen faktore astungarriak, hala nola jazarleak delitu beragatik aurrekariak izatea, jazarle bera hainbat pertsonari jazartzea, salaketaren berri jakitean edo susmoa izatean jazarleak biktima beldurtzeko jokabideak edo errepresaliak hartzea, jazarritako pertsonak ezgaitasunen bat izatea, jazarritako pertsonak jasandako osasun-kalteak, txosten medikoen bidez egiaztatuak...
- Erreparazio-neurrien gomendioak

#### **4. ERANSKINA. ERREFERENTZIAZKO LANTALDEAREN DIREKTORIOA**

Koordinazio orokorra: Irene Molero Gurrutxaga  
[coordinadora@ongdeuskadi.org](mailto:coordinadora@ongdeuskadi.org)  
943 46 35 26

Genero arduraduna: Silvia Gregorio Echeverría  
[genero@ongdeuskadi.org](mailto:genero@ongdeuskadi.org)  
94 415 03 00

Gobernu Batzordean generoko eleduna: Nerea Uriarte  
[vocaliagenero@ongdeuskadi.org](mailto:vocaliagenero@ongdeuskadi.org)  
659 32 50 60 / 943 25 03 97